

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Balio duten une bereziak, gordetzeko modukoak

Eibarko (Gipuzkoa) talde beteranoarentzat 2006 inflexio puntu garrantzitsua izan zen. Diskoetxe eta managementetik aparte, beren bidea bakarrik egiteko apustua egin zuten. *Jainko bilen ubartean* diskoa kaleratu eta borrokan aritu ziren, bai agertoki gainean, zuzenekoan, baita beste esparru askotan ere. Are gehiago, lehen ere gorriak pasa zituztenetik taldea batuta dago zeharo. Aipatutako inflexio puntu horretatik gaur egunera arte bizi izan dutena erakutsi nahi du ikus-entzunezko dokumentu honek: batetik, hiru kontzertu erraldoitan (Bilbo, Eibar eta Iruñea) jasotako irudiak bildu dituzte, taldearen gaur egungo sasoiaren erakusle; eta bestetik, zaleek ikusten ez dituzten taldearen pasarte eta egoera xeble bezain hunkigarriak. Bi aldeak erakusten dituen lan orkatu eta osatua, zalantza barik.


Une iraunkorrek
Su ta Gar

JO TA KE EKOIZPENAK

 Iraupena: 1h15'00"
17,55 euro

SU TA GAR

«Jarraitzaile gaztetxo asko izatea da bizirik jarraitzen dugunaren seinale onena»

Une iraunkor hunkigarriengatik ez balitz, Su Ta Garrek ez luke jarraituko?

Seguruena ez. Hori oso garrantzitsua da, ondo pasatzea. Hori eta zaleak edukitzea. Bi faktore horiek ezinbestekoak dira.

DVD hau egiteko azken urtean anonimotasun gabe ibili zarete, beti kamerarekin?

Ez pentsa. Kamera hori guk aldean eraman dugu, eta nahi izan dugunean besterik ez dugu piztu. Hasieran ez zegoen pentsatuta kontzertuez gain bestelako irudirik kaleratzea, baina polita zela iruditu zitzaizgun. Lan handia izan da aukeraketa egitea.

DVDaren helburuetako bat izan da zuen beste alderdiak erakustea? Nola lan egiten duzuen eta nolakoak zareten ikusgai jarri duzue.

Bai, estudioko irudien helburua izan da nola grabatzen dugun erakustea. Eta badira gauza asko normalean ikusten ez direnak. Furgonetan, parrandan... Gure entzuleei dedikatu nahi izan diogu, beraiek ere apur bat protagonista egiteko.

Entzuleekin gero eta konexio bereziagoa daukagu; eta guk ere gero eta gehiago estimatzen dugu egiten duguna. Hori transmititu egiten da.

2006 urte berezia izan zen Su Ta Garrentzat. Zuek bakarrik aurrera egitea erabaki zenuten. Balantzea egingo zenukete?

Pozik gaude. Egia esanda, ia ez gara gelditu eta ez dugu denborarik hartu atzera begiratu eta hausnarketa egiteko. Uneoro hurrengo proiektuari begira gabiltza, ahalik eta gehien ematen.

Harrigarria da zenbat gaztetxok jarraitzen zaituzten. Hori da zailena, eta aldi berean bizirauteko berme onena...

Bai, guretzat ikaragarria da. Adin guztietako entzuleak ditugu eta asko oso gazteak dira. Oso berezia da herri batera jotzera joan eta jakitea han daudenak ezin direla beste herri batzuetara zu ikustera joan. Haiek ematen dutena itzela da. Seguruena hori bizirik gaudenaren seinale da. Egia esanda, urte hauetan guztietan ez gara inoiz gelditu eta diskoak kaleratzen jarraitu dugu.

